

2015-2016 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMARAKO LAGUNTZA BERRIEN DEIALDIA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak doktorego tesia egitea helburu duten ikerketak finantzatzera bideratutako laguntza berrien deialdia egin du.

Laguntzen modalitateak:

Ezarpn-zentroaren kokapena	Laguntza Berrien linea
EAE	A modalitatea
Estatuko gainerako erkidegoak	B modalitatea
Atzerria	I modalitatea

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Hiru modalitateetan, laguntzek lanaldi osoko doktoratu aurreko kontratuen ezaugarri berak izango dituzte, laguntzak jasotzen diren aldi osoan. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta beste hiru aldiz luzatu ahal izango da, aldi bakoitzean urtebetez.

Urteko ordainsari gordina 14.545,80 eurokoa izango da A eta B modalitateetan, eta 18.182,25 eurokoa I modalitatean.

Horrez gain, laguntzek erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru bat barne hartuko dute. I modalitateak bidaiako laguntza aseguru bat barne hartuko du, baita gehigarri bat ere, joan beharreko zentrorra egin behar den joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean.

Hautagaien betekizunak:

Deialdiko [oinarrien](#) 25. artikulua kontsultatu.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Hautagaia arduratuko da eskaera betetzeaz, [formulario elektronikoaren](#) bitartez, eta eskaera erregistratu ere egin beharko du, [22.2 eta 22.3 artikuluetan](#) adierazitako bideetako edozein erabiliz. Horretarako epea **2015eko irailaren 18an, ostirala, amaituko da (egun hori barne)**.

Erregistroa Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Bulegoetan egin ahalko da, eskatzailearen ezarpen-zentroa bada:

- Arabako 01 erregistro-bulegoa (Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izardui komandantea 2, 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Gipuzkoako 02 erregistro-bulegoa (Ignacio M.^º Barriola gelategia, Elhuyar plaza 1, 20018 Donostia).
- Bizkaiko 03 erregistro-bulegoa (Errektoretza, Sarriena z.g., 48940 Leioa)
- Bizkaiko 04 erregistro-bulegoa (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbao).

OHAR GARRANTZITSUA:

UPV/EHUko konpromiso dokumentua eskuratzeko izapideak:

Deialdiaren 27.6 artikulua adierazten duen moduan, UPV/EHUrak atxikitzea aurreikusita duten eskatzaileen kasuan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak ofiziozko konpromiso dokumentua eskatuko du; horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara joko du zuzenean. Beraz, eskatzaile horiek ez dute aipatutako dokumentua erantsi beharko aplikazioan.

Harremanetarako:

Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco:

- EAetik: 012
- EAE kanpotik: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000

UPV/EHU:

- Tel.: 94 601 80 08
- Helbide elektronikoa: rrhh-inves.dgi@ehu.es

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2015/predoc-berri/y22-izapide/eu/